



Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2019/23

BERDINTASUNEN PRESTAKUNTZA PROIEKTUAK - Deialdia, irabazi asmorik gabeko entitateei norgehiagokako araubidean diru-laguntzak emateko, Berdintasuna eta LGTBI eskubideak sustatzeko prestakuntza proiektuak egin ditzaten, 2019. urtean.

Deialdi honen helburua da diru-laguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honen B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hartutako erabakiaren bidez hasiera batez onetsi baitzen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO](#)n, [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).**

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA.
2. Organo emailea:	Alkatetza
3. Alor kudeatzailea:	Alkatetzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Diru-laguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Diru-laguntzak ematea irabazi-asmorik gabeko Iruñeko elkarte eta entitateei, 2019. urtean prestakuntza-proiektuak finantzatu ditzaten, betiere proiektu horiek helburu izanen dutelarik Berdintasunean eta LGTBI eskubideetan trebatzeko prozesuak bultzatzea.

2. Deialdiaren helburua:

Deialdi honek tresna bat izan nahi du Udalaren esparruan, elkarteek eta irabazi-asmorik gabeko entitateek prestakuntza-jarduerak gara ditzaten, helburu harturik Berdintasunean eta LGTBI eskubideetan trebakuntza-prozesuak bultzatzea.

Deialdi honetan Berdintasuneko Alorrak baliabide, babesle eta laguntzaile pedagogiko izan nahi du aipatutako prestakuntza-arloetan eskarmentu nahikoa ez duten edo sakondu nahi duten elkarte eta irabazi asmorik gabeko entitateendako.

3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Modalitate bakar bat ezarri da: Prestakuntza-ekintzak, Berdintasuna eta LGTBI eskubideak sustatzeko.

Prestakuntza-ekintza bakoitzeko eskatu daitezkeen gehieneko zenbatekoa 6.000 eurokoa edo gutxiagokoa izanen da.

Entitate eskatzaile bakoitzak honako hauetarako diru-laguntza eskura dezake:

Prestakuntza-ekintza baterako proiektu bat entitate bakoitzeko, edota zenbait entitatek elkarrekin garatutako proiektu bat, baldin eta taldeka aurkeztutako proiektua banaka aurkeztutako horren desberdina bada.

Helburuak.

Diru-laguntza jasotzeko, proiektuak helburu hauetakoren bat bilatzera zuzendu beharko dira:

+ Prestakuntza-ekintzak, Berdintasuna eta LGTBI eskubideak sustatzeko:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

1. Behar diren bideak sortzea emakume eta neskatuen autonomia eta ahalduntzea lortze aldera, bizitzaren alor guztietan sustatzeko eragiteko ahalmena, partaidetza eta ahalduntze kolektiboa, betiere generoa kontuan hartuta beste desparekotasun ardatz batzuekin batera.
2. Balio patriarkalak eta indarkeria nahiz desberdintasuna –edozein eratakoa– elikatzen dituzten ereduak aldatzea, eta genero-indarkeriari –esparru eta adierazpen orotan– aurre egiteko estrategiak modu aktiboan ikastea sustatzea.
3. Hausnarketa sustatzea eta zainketak eta erantzunkidetasuna baloratzea, bateragarritasun-beharrak asetzea eta sexuaren araberako lan-banaketa zalantzan jartzea.
4. Jarrera positiboak eta aktiboak sustatzea, emakume nahiz neska gazteengan, osasuna eta bizi-kalitatea kudeatzean.
5. Genero-ikuspegia esparru sozial, ekonomiko, kultural eta profesioetan ezartzen laguntzea, trebakuntza espezializatua eta genero-ikasketak sustatuz.
6. Prestakuntza-jarduketak egitea, xede harturik herritarrak sentsibilizatzea, LGTBI pertsonak errespetatzea, tratu berdintasuna jasotzeko eskubidea erabat gauzatzea, eta babesa ematea bereizkeria-mota edo ekintza zein jarrera onartezin ororen aurrean.

Edukiak:

Prestakuntza-proiektuak hezkuntza ez arautuaren barruan sartuko dira.

Prestakuntza-jarduerak ardatz hauetako bati edo batzuei lotuko zaizkie:

1. Norberaren ahalduntzea.
2. Taldeen eta erakundearen ahalduntzea.
3. Gizartearen eta komunitatearen ahalduntzea.

Betiere marko horren barruan, arlo hauek aintzat hartuko dira:

1. Animazio soziokulturala, asoziazionismoa, partaidetza eta komunitate-garapena
2. Sormena eta adierazkortasuna
3. Dibertsitate funtzionala, zentzumenetako eta adimenekoa
4. Kultura-aniztasuna
5. Sexu-aniztasuna eta genero-identitatea
6. Hezkidetzak
7. Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna
8. Komunikazio soziala eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
9. Gazteendako dinamizazioa eta informazioa
10. Gizarte-berrikuntza
11. Zeharkako beste ardatz batzuk

Prestakuntza-ekintzen formatua:

Prestakuntza-ekintzak egokien jotako metodologia-formatuetan proposatu daitezke: ikastaro monografikoak, mintegiak, jardunaldiak, prestakuntza-topaketak, prestakuntza-elkartrukeak edo ikerlanak, prestakuntza, partaidetza, berdintasun eta gizarte-ahalduntzearen esparruetan.

Prestakuntza-jarduketak aurrez aurreko saioetan gauzatuko dira, eta on line ere jaso daiteke prestakuntza osagarria (ordu horiek ez dira sartuko prestakuntza-orduen guztizko kopuruan).

Prestakuntza-saioen guztizko ordu-kopurua: oro har, 8 eta 60 ordu bitarteko prestakuntza-proiektuak aurkezten ahalko dira.

Baldin eta prestakuntza-ekintzak 40 orduko gorakoak badira edo horietan 4 prestatzaile edo gehiago badaude, nahitaezkoa izanen da koordinatzaile pedagogikoaren figura, eta horrek bere gain hartuko ditu zeregin hauek:

-Bermatzea bilakaera egokia dutela prestakuntza-ekintzen fase guztiek: diseinua, programazioa,



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

hedapena, izen-emateak, hautaketa, garapena eta ebaluazioa.

- Berdintasuneko jarraipen-bileretan parte hartzea, hala dagokionean.

-Prestakuntza-ekintzetako saio guztietara bertaratzea eta horiek iraun bitarte bertan egotea (prestakuntza-orduen % 100ean), ikasleak bertaratzearen eta parte-hartzearen gaineko jarraipena egite aldera.

-Ebaluazioa egitea, eta memoria eta didaktika-dokumentazioa aurkeztea.

Prestakuntza-ekintzetan parte hartzen ahal duten ikasleak:

-Herritarrei, elkarteei eta irabazi-asmorik gabeko kolektibo eta herritar-entitateei zuzendutako prestakuntza-ekintzak dira.

Parte-hartzaileek 18 urtekoak edo hortik gorakoak izan beharko dute. Salbuespen gisa, 18 urtetik beherakoendako prestakuntza-jarduerak egin ahalko dira, betiere adingabekoen legezko tutoreen idatzizko baimena eskuratuta eta baldin eta prestakuntzaren metodologia parte-hartzaileen adinera egokitzen bada.

-Lehentasuna izanen dute Iruñean bizi direnek.

-Prestakuntza-ekintza aurrera atera dadin gutxienez 15 lagunek parte hartu beharko dute (gutxieneko kopuruan aldaketarik badago, jarduera hasi baino lehenago eman behar zaio horren berri Berdintasunari, eta horrek erabakiko du jarduera egiten hasiko den, betiere parte-hartzaileen kopurua ezin delarik izan 8 baino gutxiago), eta gehienez ere 30ek (gehieneko parte-hartzaileen kopuruan aldaketarik eginez gero, entitateak hori arrazoitu beharko du, proiektuan). Izena eman duten lagunen kopurua gutxieneko parte-hartzaileen kopurua baino txikiagoa bada, ezin izanen da ikastaroa egin.

Talde mistoen kasuan, gomendagarria da parte hartzen duten emakumeen eta gizonen ehunekoak parekoak izatea.

Prestatzaileak, irakasleak eta koordinatzaileak:

Prestakuntza-ekintzak koordinatu eta emanen dituztenek behar bezala egiaztatutako titulazioa zein prestakuntza izan beharko dituzte.

Entitateek prestatzaileen, irakasleen eta koordinatzailearen CVak aurkeztu behar dituzte Berdintasunean.

Prestakuntza-ekintzetan sortutako materialak:

Prestakuntza-ekintzen ondorioz sortutako materialak –interes berezikotzat jo daitezkeenak– Berdintasunak jaso eta artxibatuko ditu. Orobat, “kalitatezko esperientzia” edo “jardunbide egoki” gisara bildu ahalko dira, eta horiek dokumentatu, aurkeztu edota hedatu (argitalpen, webgune, buletin elektroniko, jardunaldi eta abarren bitartez).

Agiri, publizitate, irudi zein material orotan hizkuntza inklusiboa erabili beharko da, eta ekidin emakumeen irudi baxtertzaila eta estereotipo sexista oro; halaber, honako hauek dituen irudia sustatuko da: berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero-rol eta -nortasun askotarikoak.

Jarduketan prezioak:

Prestakuntza-jarduketak eta horien jarduerak doakoak eta jende orori irekiak izanen dira beti. Doakoa ez den jarduerarik egiten bada, horren arrazoia justifikatu beharko da eta alde zuzenetik diru-laguntza kudeatzen duen unitateak baimendu beharko du. Halaber, konpentsazio-neurriren bat ezarri beharko da, errenta-maila baxua dutenen parte-hartzea laguntze aldera.

Horiek horrela, entitate onuradunak eskaera egin beharko du, idatziz, doakoa ez den jarduera egiteko beharra justifikatzeko, betiere jarduera hori programatu eta hedatu baino lehen. Jarduera soilik gauzatuko da baldin eta diru-laguntza kudeatzen duen unitateak baimena ematen badu.

Jarduerak egiteko epea:

Jarduerak egiteko epea 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa da.



C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRU-LAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 20.000 €

Diru-laguntza mota bakarra ezarri da, eta entitate eskatzaile bakoitzak proiektu bakar bat egiteko diru-laguntza jaso ahalko du, betiere 6.000 eurotik gorakoa ez bada.

Esleitutako aurrekontu-zenbatekoa banatuko da aurkeztutako eta deialdian sartutako proiektuen artean. Proiektu-hurrenkera bat ezarriko da, balorazioan lortutako puntuazioaren arabera.

Diru-laguntzak bideratutako aurrekontu-kontsignazioa agortu arte emanen dira, eta gerta daiteke proiektu batek edo bestek diru-laguntzarik ez jasotzea nahiz eta 60 puntu (diru-laguntza jaso ahal izateko eskatutako gutxienekoa) baino gehiago eduki.

Diru-laguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 10/23910/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Gehienez ere eskatutako diru-laguntzaren % 100 emanen da, eta ezin izanen du 6.000 eurotik gora jo.

4. Hainbanatzeko aukera:

BAI EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Hainbat urtetarako deialdia: BAI EZ

Zenbait urtetarako deialdia izanez gero, zenbait urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Aurtengo zenbatekoa:	20.000 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa:	€
1. urtekoa:	€	3. urtekoa:	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Onuradun izan daitezke diru-laguntzaren oinarri den egoeran dauden pertsona edo entitateak, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta paragrafo honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: BAI EZ

Diru-laguntza eskatzen ahalko dute irabazi-asmorik gabeko elkarte eta bestelako entitateek, bakarka edo taldeka, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta dagokien Erregistroan izena emanda izatea, eskabidea aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.

2. Irabazi-asmorik gabekoa izatea.

3. Iruñean edukitzea taldearen egoitza nahiz zergetarako helbidea, edo, bestela, Iruñeko udal-mugartean egitea diru-laguntzaren xede diren prestakuntza-programa, -proiektu, -jarduera edo -jarduketa guztiak. Diru-laguntzaren xede den jarduerak, salbuespenez, udal-mugartea gainditzeko badu, Udalaren interesen aldekoa izan beharko du, zuzenean edo zeharka, halako moduz non baldintza horrek aski justifikaturik gelditu beharko baitu diru-laguntza eman baino lehen.

4. Iruñeko Udalarekin lankidetzeta-hitzarmenik edo kontraturik sinaturik ez edukitzea, diru-laguntza zein prestakuntza-programa, -proiektu, -jarduera edo -jarduketarako eskatu eta horretarako, eta ez jasotzea alor honen edo Iruñeko Udalaren beste edozein alorren diru-laguntzarik, jarduera berberak gauzatzeko.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

5. Diru-laguntzaren xede diren prestakuntza-programa, -proiektu, -jarduera eta -jarduketan helburuak deialdi honen xedearekin loturik egon beharko dute.

6. Proposatutako helburuak betetzeko behar bezalako egitura edukitzea jada jardunean, eta horiek lortzeko beharrezko ibilbidea, esperientzia eta gaitasuna egiaztatzea.

7. Egunean edukitzea tributuei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak. Iruñeko Udalak bere kabuz egiaztatuko du tributu-betebeharrak egunean dituztela, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du.

Era berean, diru-laguntza emateko proposamena egin aurretik, Udalak ofizios egiaztatuko du onuradunak ez duela zorrik Udaleko Diruzaintzarekin.

8. Pertsona fisiko edo juridikoen taldeen kasuan, banakako erantzukizunpean arituko da kide bakoitza, eta, behar izanez gero, nork bere PFEZren aitortpenean diru-laguntza jaso duela aitortuko du.

Berariaz deialdi honetatik at daude honako hauek:

1. Enpresak eta irabazi-asmoa duen beste edozein entitate.

2. Elkarreak eta lagun-taldeak, baldin eta deialdiaren xedearekin bat ez datozen prestakuntza-programa, -proiektu, -jarduera edo -jarduketak aurkeztu badituzte, edota Udalaren bestelako deialdi batean jasotako helburuei zuzendutakoak aurkeztu badituzte.

3. Diru-laguntzei buruzko Ordenantzaren 5. artikuluekin bat, ezin izanen dira diruz lagundu herritar guztiei irekita ez dauden prestakuntza-programak, -proiektuak, -jarduerak eta -jarduketak edota edozein motatako irizpide sexista, arrazista, xenofobo eta diskriminatzaileak aplikatzen dituztenak. Gainera, diruz lagundutako jarduerak gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna sustatu beharko dute.

Diru-laguntzen deialdira aurkezteko argibideak, laguntza, orientazioa edota aholkularitza behar dituzten pertsona eta entitateek Berdintasunera jo dezakete (Udaletxeko 4. solairua).

Diru-laguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzetik:

BAI EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) puntuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, diru-laguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI EZ

1. Diru-laguntzaren xede den helburua bete, proiektua egin edo jokabideari heltzea. Jarduerak Iruñeko lurralde-esparruan eginen dira, eta behar den bezala egiaztaturik dagoen titulazioa zein prestakuntza dituzten pertsonak koordinatu eta emanen dituzte.

2. Gutxienez 15 parte-hartzaile bermatzea (aldaketarik badago, jarduera hasi baino lehenago eman behar zaio horren berri Alor eskudunari, eta horrek erabakiko du jarduera egiten hasiko den, betiere parte-hartzaileen kopurua ezin delarik izan 8 baino gutxiago), eta gehienez ere 30 prestakuntza-jarduera bakoitzean.

3. Bertaratze-agiriak ematea ikastaroa behar bezala amaitu duten ikasleei. Agiri horietan Iruñeko Udalaren logotipoa agertuko da, eta horrekin batera legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala. Alkatetza/Berdintasuna".



- 4. Behar bezalako publizitatea egitea, dirua jaso behar duten prestakuntza-programak, -proiektuak, -jarduerak edo -jarduketak Iruñeko Udalak osorik edo hein batean finantzatu dituela jakitera emate aldera, betiere betekizun hori kasuan kasuko deialdiak, hitzarmenak edo ebazpenak exijitzen badu.**
- 5. Iruñeko Udalari baimena eta laguntza ematea diruz lagundutako prestakuntza-programa, -proiektu, -jarduera edo -jarduketen garapena hedatzeko, xede harturik Berdintasunean eta LGTBI eskubideetan trebakuntza sustatzea.**
Diruz lagundutako prestakuntza-programa, -proiektu, -jarduera eta -jarduketen harira prestatutako ekintzak, materialak eta hedapen- zein sentsibilizazio-kanpainak igualdad@pamplona.es helbidera igorri behar dira, edo, bestela, prestakuntza-ekintzak abiarazi aurretik unitate kudeatzaileak hedapen- eta dokumentazio-zereginetarako ezartzen duen helbidera.
- 6. Harremanetan eta koordinaturik egotea Berdintasunarekin, prestakuntza-proiektuak iraun bitarte.**
- 7. Bide ematea Berdintasuneko teknikariek elkarteetara bisitak egin ditzaten, prestakuntza-ekintzen jarraipena egin eta ikasleei programak eta baliabideak aurkezte aldera.**
- 8. Bertaratzea prestakuntza-ekintzen amaierako ebaluazio-bilerara, zeinera diru-laguntzaren onuradun diren elkarte guztiak joanen baitira.**
- 9. Prestakuntza-jardueraren memoria bat egitea, eta horretan jasotzea dokumentazio didaktikoa. Egiaztagiriak aurkezteko epea 2019ko abenduaren 16an amaituko da; salbuespenezko kasuan, prestakuntza-jarduera amaitu gabe egonez gero, behin-behineko memoria eta egiaztagiriak aurkeztu beharko dira 2019ko abenduaren 16a bitarte, eta behin betiko memoria eta egiaztagiriak, osaturik, 2020ko urtarrilaren 8a baino lehen.**
- 10. Bermatzea, ahal den neurrian, parte-hartze maila eta parte-hartzaileen kopurua mantendu egiten dela ikastaroa amaitu arte.**
- 11. Prestakuntza-ekintzak koordinatzaile bat egotea ekartzen badu, entitateak bermatu beharko du koordinatzaile hori prestakuntza-prozesu osoak iraun bitarte egonen dela, eta zeregin hauek beteko dituela:**
 - Bermatzea bilakaera egokia dutela prestakuntza-ekintzen fase guztiek: diseinua, programazioa, hedapena, izen-emateak, hautaketa, garapena eta ebaluazioa.
 - Prestakuntza-ekintzetako saio guztietara bertaratzea eta horiek iraun bitarte bertan egotea (prestakuntza-orduen % 100ean), ikasleak bertaratzen diren eta parte-hartzearen gaineko jarraipena egite aldera.
 - Ebaluazioa egitea, eta memoria eta didaktika-dokumentazioa aurkeztea.
- 12. Organo emailearen aurrean justifikatzea, justifikazio-txostenak aurkeztuta, baldintzak eta betekizunak bete dituztela, bai eta diruz lagundutako programa, proiektua, jarduerak edo jarduketak egin direla eta diru-laguntza zertarako den eta helburu hori bete dutela ere.**
- 13. Men egitea organo emaileak egin beharreko jarraipen- eta egiaztapen-jarduketei, bai eta kontrol-organo eskudunek egiaztatzeke zein finantzaketa kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere, betiere jarduketa horien ondorioz eskatzen dizkieten argibideak oro eman beharko dituztelarik, halakoak udal-artxiboetan jasota egon ezean.**
- 14. Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.**
- 15. Kontabilitate-liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala beterik eta eguneraturik entitate onuradunari kasuan-kasuan aplikatzen ahal zaizkion merkataritzako legeek eta lege sektorialek ezarritakoarekin bat.**
- 16. Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne–, egiaztapen eta kontrol jarduketen xedea izan daitezkeen neurrian.**



17. Iruñeko Udalari jakinaraztea diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro, eta, behar izanez gero, hari behar den baimena eskatzea.

18. Unitate kudeatzaileari jakinaraztea proiektua garatzen den bitartean entitate eskatzailearen edo eskatzaileen nortasun juridikoan izandako aldaketen berri: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, etab. Proiektu bat aldatzeko eskabidea aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak gertatu eta berehalakoan aurkeztu behar da, eta betiere aldaketak sartu baino lehenago, deialdi honen F) letran adierazitakoaren arabera.

19. Jasotako zenbatekoak itzultzea, hala deialdi honen Q) letran nola Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako gainerako kasuetan.

- Behar bezalako publizitatea egiteko betebeharra, jakitera emate aldera Iruñeko Udalak finantzatu dituela diru-laguntzaren xede diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak: BAI EZ

Hona pertsona edo entitate onuradunak laguntza jaso izanaren berri emateko hartu behar dituen neurriak:

Iruñeko Udalaren irudi instituzionala eranstea.

Legendak karteletan, material inprimatuetan, bitarteko elektrikoetan, ikus-entzunezkoetan eta abarretan.

Oroitzapen-plakak.

Aipamenak hedabideetan.

Beste batzuk:

Entitate onuradunak sortutako materialetan eta gaztigu-idazkietan honako legenda hau txertatu beharko du Iruñeko Udalaren logotipoarekin batera: "Laguntzailea: Iruñeko Udala. Alkatetza/Berdintasuna.

- Diru-laguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean 29.4 artikularekin bat: BAI EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera: BAI EZ

Hasierako proposamena berriz egokitu behar denean jarduerak zein errealitatean garatu behar diren eta horretara, aldaketak egiten ahalko dira proiektua gauzatzean, hasierako aurreikuspeni dagokienez, ustekabeko inguruabarrak direla medio, inguruabar horiek kontuan hartzekoak badira jarduera zuzen betetzeko eta aldaketa horiek ez badute eragiten funtsezko aldaketarik prestakuntza-ekintzan.

Aldaketa horiek egin ahal izateko, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko zaio diru-laguntza kudeatzen duen Berdintasuneko unitateari, aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen.

Aurreikusi gabeko inguruabarrak direla medio, proiektuan aldaketak egiten ahalko dira prestakuntza-ekintzaren helburuak, jarduerak eta talde hartzailak ukitzen dituzten alderdietan, betiere aurretiko baimena beharko dutelarik. Programa, proiektua, jarduerak edo jarduketak egitean moldaketak egiten badira, Berdintasunak horiek baloratu beharko ditu alde aurretik, eta diru-laguntza kudeatzen duen unitateak, baimendu. Aldaketak egiteko baimen horiek emanen dira, baldin eta horiek eraginik ez badute aplikatutako balorazio-irizpideetan eta diru-laguntza emateko egintzaren norgehiagokan.

Halaber, diru-laguntzaren zenbatekoak eskatutako kopuruak baino gutxiago jotzen badu, prestakuntza-ekintza eta horren aurrekontua finantzazio aukera errealekara doitzeko eskatzen ahalko zaio onuradunari



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

diru-laguntzaren gaineko ebazpena eman baino lehen. Aurkeztutako aldaketak diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko ditu, eta ezin izanen du jarduketa edo ekipamendu berririk edo hasierako eskabidean sartu ez zirenik erantsi. Aldaketa horiek egiteko, unitate kudeatzaileak entitate onuradunei jakinaraziko die badutela 5 eta 10 egun natural bitarteko epea horiek aurkezteko. Behin epea amaituta, unitate kudeatzaileak aurkeztutako aldaketak baloratuko ditu, eta emaitzen berri jakinaraziko die entitate onuradunei.

Proiektua garatzen den bitartean entitate onuradunak sartzen baditu deialdi honetan ezarritakoarekin bat aldeztatik baimendu gabeko aldaketak, zilegi izanen da jasotako diru-laguntzak osorik edo hein batean itzularaztea edo, hala badagokio, diru-laguntza kobratzeko eskubidea osorik edo hein batean galtzea. Proiektuaren barruan hainbat jardura independente baldin badaude, baldintza horrek soilik eraginen die baimendu gabeko aldaketak izan dituzten jardueri.

Proiektua gauzatzean gerta daitezkeen gainerako gertakariak eta aldaketak memoria-txostenean adieraziko dira, eraginik ez dutelako proiektua baloratzeko alderdietan, edo xehetasunak direlako.

Jardueraren finantza-egiaztapen edo -justifikazioaren fasean bakarrik joko dira egokitzen aurretik adierazitako baldintzak betetzen dituzten aldaketak.

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa (www.pamplona.es) argitara emandako "Diru-laguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T letretan aipatutako agiriak.

2. Eskabideak aurkezteko epea: **HILABETEko epea egonen da, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina.**

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo diru-laguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizuneko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Diru-laguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) zenbakian aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste ezein Administrazioak jaulki baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalarik baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalarik baimenik ematen agiriok zer administrazioak eman eta horrengandik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztatik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Diru-laguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.



4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagirak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

b) Erantzukizuneko aitortpena, izapide telematikoan ezarritako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere diru-laguntzak emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio haiek aurkeztea.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunak emandako egiaztagirak aurkeztu beharko ditu, diru-laguntza eskatzean egindako aitortpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak aurreikusten duenean eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen talderen bat izateko aukera –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko diru-laguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduen bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Aitortpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako diru-laguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. BAI EZ

f) Eskatzen den diru-laguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duen memoria.

Horri atxikiko zaio proiektua aurkezteko inprimakia, deialdi honen V. eta VI. eranskinekin bat (Proiektu-proposamenaren inprimakia eta Prestakuntza-ekintzaren Tarifak eta Aurrekontua).

g) Prestatzaileen, irakasleen koordinatzaileen curriculumak.

h) Pertsona, entitate, kolektibo zein elkarte lehenengo aldiz aurkezten bada deialdi honetara, edo banku-kontuaren zenbakia aldatu badu, diru-laguntza zein banku-entitatetan sartu behar den, halakorik egin behar izanez gero, eta horren jatorrizko egiaztagiria. Egiaztagiri hori eguneraturik aurkeztu beharko



da.

i) Proiektuan garatu beharreko jarduerak hala eskatzen badute, galdatu beharreko segurtasun neurrien inguruko adierazpena aurkeztu beharko da (VII. Eranskina) eta, baita ere, erantzukizuneko aitortpena, Alkatetzak 2016ko apirilaren 21ean emandako Dekretuak eskatutako baldintzak betetzeari buruz (VIII. Eranskina).

j) Gauzatu beharreko proiektua edo jarduketa zuzen ulertzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri (grafikoak, teknikoak, finantzakoak eta bestelakoak).

Telematikoki egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautotuak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautotuak –eta horien artean, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak ere– eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Aurkeztutako jardueren gaineko balorazio irizpideak eta diru-laguntzaren zenbatekoa lehentasun-irizpide hauekin bat ezarriko dira:

Proiektuaren osoko balorazioa irizpide hauetako bakoitzean lortutako puntuen batuketaren emaitza izanen da:

1. Entitate eskatzaileari edo eskatzaileei dagozkien irizpideak: 10 puntu bitarte.

a) Emakumeek osatutako elkarteak, kolektibo feminista edo LGTBI kolektiboa izanez gero: 10 puntu.

b) Emakumeek osatutako elkarteak, kolektibo feminista edo LGTBI kolektiboa izan ezean: 5 puntu bitarte.

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiteko entitatearen konpromisoaren deskribapena, zeina estatutuetan jasoa egonen baita: 2,5 puntu.

- LGTBI eskubideen alde lan egiteko entitatearen konpromisoaren deskribapena, zeina estatutuetan jasoa egonen baita: 2,5 puntu.

2. Irizpideak, entitate eskatzaile edo eskatzaileek gauzatu eta garatu beharreko proiektuaz bezainbatean: 10 puntu bitarte

a) Proiektua entitate batek aurkezten badu: 1 puntu.

b) Proiektuak 3 entitatek edo gehiagok aurkezten badute, betiere entitate guztiek erantzukizun-maila berdina dutelarik: 10 puntu.

c) Proiektua 3 elkartek edo gehiagok aurkezten badute, horien erantzukizun-maila desberdina delarik: 5 puntu.

3. Prestatzaileei, irakasleei eta koordinatzaileei dagozkien irizpideak: 20 puntu bitarte

a) Prestakuntza-proiektua kudeatzeko gaitasun nahikoa eta egiaztatua izatea, kontuan harturik prestatzaile eta irakasleen prestakuntza eta esperientzia (10 puntu bitarte).

b) Prestakuntza-proiektua kudeatzeko gaitasun nahikoa eta egiaztatua izatea, kontuan harturik prestakuntza-ekintzaren koordinatzaile arituko den pertsonaren prestakuntza eta esperientzia (10 puntu bitarte).



4. Proiektuari dagozkion irizpideak: 60 puntu bitarte.

a) Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa: 35 puntu bitarte.

- Garatu beharreko proiektuari buruz aurkeztutako informazioaren maila eta kalitatea: proiektua zein ingurunetan zedarritu eta horren egoeraren azterketa, egin beharreko jarduerak, etab.
- Koherentzia-maila honako hauen artean: jarduketaren justifikazioa, ezarritako helburuak, proposatutako jarduerak eta aurreikusitako emaitzak.
- Genero-ikuspegiaren txertatze-maila prozesu osoan zehar (oinarria, plangintza, jarduerak, jarraipena eta ebaluazioa).
- Erabili beharreko baliabideen eta egin beharreko jardueren baliozkotasuna eta interesa (jardueren eraginkortasuna, ikasbide aktiboa, teknologia berrien erabilera, bateragarritasun-zerbitzuak edukitzea...).
- Aurrekontua proposatutako jardueretara egokitzea, aurrekontuaren garapen xehatua egitea eta deialdi honetan zehaztutako mugetara doitzea.
- Gauzatu beharreko ekintzen bideragarritasuna (bitarteko teknikoak, langileak barne)
- Prestakuntza-jarduketetatik espero daitekeen eragina edo emaitza.
- Garatu beharreko ebaluazioa: haren adierazleak, tresnak eta ebaluazio-iturriak zehaztuta.

b) Sustatu nahi den prestakuntza eta balio-aldaketa: 25 puntu bitarte.

- Generoaz gain, beste desparekotasun- eta desberdintasun-ardatz batzuk kontuan hartzea: klase soziala, adina, migrazio-egoera, sexu-dibertsitatea, genero-identitatea, dibertsitate kulturala eta funtzionala, desgaitasunak eta hizkuntza dibertsitatea.
- Berdintasunaren aldeko jokamoldeak modu aktiboan ikasten laguntzea eta gogoeta egitea emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunari eta hori eragiten duten zioei buruz.
- Genero-indarkeriari, maitasun erromantikoaren ereduak eta harreman toxiko nahiz desorekatuei aurre egiteko estrategiak modu aktiboan ikastea sustatzea.
- Bide ematea emakumeen eta neska gazteen ahalduntzeari.
- Hausnarketari bide ematea balio patriarkalen, genero-estereotipoen eta berdintasunerako eredu berrien ikaskuntzaren inguruan gogoeta egiteko.
- Hausnarketa sustatzea eta jarduketak garatzea zainketak eta erantzunkidetasuna baloratzeko, bateragarritasun-beharrak asetze aldera eta sexuaren arabera lan-banaketa kolokan jartzeko.
- Jasangarritasun-irizpideak txertatzea gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetan.

Ezin izanen dira diru-laguntzen onuradun izan guztira 60 puntuko balorazio globala (atal honen 1., 2., 3. eta 4. puntuak) lortzen ez duten entitateak. Ez dira baloratuko deialdiaren xedeari lotzen ez zaion proiektu edo programa batean sarturik dauden jarduketa edo jarduera solteak. Proiektuak bazter geratuko dira gutxienez 60 puntu eskuratzen ez badituzte.

Ezin izanen dira diru-laguntzen onuradun izan, ezta ere, 3. puntuan (Prestatzaileei, irakasleei eta koordinatzaileei dagozkien irizpideak) guztira 10 puntu eskuratzen ez dituzten entitateak.

Aurrekontuko partida agortzen bada puntuazio bereko bi eskaera edo gehiagorekin, berdinketa ebazteko kontuan hartuko da, bakarrik, zer proiektu eskuratu duen puntu gehiago 1. irizpidean. Berdinketak bere horretan segituz gero, 2. irizpidean zeinek lortu duen puntu gehiago hartuko da kontuan, eta, oraindik ere berdinduta egonez gero, 4. irizpidearen a) letran lortutako puntuazioari erreparatuko zaio, beharrezkoa bada.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian aipatutako hauek osatua:

Batzordeburua: Tokiko Ekonomia Jasangarriko Zinegotzi Ordezkarria

Epaimahaikideak:

1. Alkatetza, Gardentasuna, Berrikuntza eta Hizkuntza Politika



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

2.	Berdintasuneko koordinatzailea
3.	Berdintasun teknikaria
Idazkaria:	Berdintasun eta LGTBiko Alorrari atxikitako zuzenbidean lizentziaduna

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskabideen aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar dituzten baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) letran aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 17.4 artikuluekin bat, ebatzi eta jakinarazteko epea, gehenez ere, sei hilabetekoa izanen da.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: diru-laguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaera ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- Tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Diru-laguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako diru-laguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRU-LAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira diru-laguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek ahalko dira diruz lagundu:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

1. Proiektuari zuzenean lotutako gastuak.

a) Jarduerari egozten ahal zaizkion giza baliabideak, V. eranskinarekin bat (Prestakuntza-ekintzaren tarifak eta aurrekontua).

a.1) Prestakuntza-ekintzen prestatzaile eta irakasleenak: 60 euro, prestakuntza-ordu bakoitzeko.

a.2) Koordinazio-gastuak:

a.2.1) 40 ordutik beherako prestakuntza-ekintzen kasuan. Ezarritako guztizko orduen % 40 joko dira koordinazio-ordutzat, eta koordinazio-ordu horietako bakoitzak 15 euroko balioa izanen du.

Koordinazio-gastuak = prestakuntza-orduen guztizko kopuruaren % 40 * 15 euro/ordu

a.2.2) 40 ordu eta 60 ordu bitarteko prestakuntza-ekintzen kasuan, ezarritako guztizko orduen % 40 joko dira koordinazio-ordutzat. Ordu-kopuru horri gehituko zaio prestakuntza-orduen kopurua. Hala koordinazio-ordu bakoitzak nola prestakuntza-ordu bakoitzak 15 euroko balioa izanen dute.

Koordinazio-gastuak = (prestakuntza-orduen guztizko kopuruaren % 40 + prestakuntza-orduen kop.) * 15 euro/ordu

b) Material suntsikorrek eta diruz lagundutako jardueren publizitateak eragindako gastuak, VI. eranskinarekin ezarritako irizpideekin bat. Gastu hauek, guztira, ezin izanen dute prestatzaileek eta koordinatzaileek eragindako gastuen batuketaren % 5 baino gehiago jo.

Material suntsikorren eta publizitatearen gastuak = (prestatzaileen gastuak + koordinazio-gastuak) * % 5

c) Beste gastu batzuk, prestatzaileei soilik dagozkienak (jarduerari egozten ahal zaizkion giza baliabideen joan-etorriak, dietak eta ostatu-gastuak), V eranskinarekin ezarritako irizpideekin bat. Kategoria honetako gastuak 500 euro jotzen ahalko du, gehienez ere.

d) Mendekotasuna duten pertsonak artatzeak eragindako gastuak (haurtzaindegiak, ludotekak, adinekoen arta, etab.) diruz lagundutako jarduerak egin bitartean.

Diru-laguntzaren xede diren gastuetan, eskuratze-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

BAI EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diru-laguntzen xedea izanen:

a) Iruñeko Udalaren edo Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak diren prestakuntza-jarduerak.

b) Prestakuntzakoak ez diren proiektuak eta jarduerak.

c) Elkartearen langile-gastuak, dietak eta kilometraje-ordaina.

d) Entitatearen barne-funtzionamenduko jarduerak –herritarrei irekita ez daudenek– eragindako gastuak: entitatearen batzarrak, bilerak edo topaketak, barne-prestakuntzako jarduerak, barne-komunikazio eta -informaziorako bideak, etab.

e) Aisialdiko eta jolaserako jarduerak eragindako gastuak.

f) Jardueretara joan edo horietan parte hartzen dutenei emandako lunchek, bazkari-afariek, ekitaldiek eta abarrek eragindako gastuak.

g) Jardueretara bertaraten diren edo horietan parte hartzen duten pertsonendako ekarpenak, diruz zein gauzaz.

h) Material inbentariagarria erosi eta mantentzeak, altzariak erosteak edo lokalak egokitzeak eragindako gastuak.

2. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: *Diruz lagundu daitezke 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko epean egindakoak.*



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI EZ

Ehunekoak: gehienez % 50

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta diru-laguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: BAI EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak:

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren diru-laguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diru-laguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Diru-laguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua:

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zuzenaren artekoa:

Behin entitate onuradunak entitate kudeatzaileari aurkeztuta hala prestakuntza-ekintzan izena emateko agiriak (15 lagunenak gutxienez, eta gutxienez kopuru horretan aldaketarik badago, jarduera hasi baino lehenago eman behar zaio horren berri Berdintasunari, eta horrek erabakiko du jarduera egiten hasiko den, betiere parte-hartzaileen kopurua ezin delarik izan 8 baino gutxiago) nola hasiera-datari buruzko agiriak, emandako diru-laguntzaren % 50 ordainduko da. Ordaintzeke geratzen den % 50 ordainduko da behin deialdi honen P) letrak aipatzen dituen gastuen justifikazio-agiriak aurkeztu, justifikazioaren gaineko balorazio-txostena egin eta gastuei buruzko txostena aurkeztu eta gero.

Diru-laguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.



Aurrekoa gorabehera, Udalak ofizioz kitatzen ahal izanen ditu, aldez aurretik, diru-laguntzen entitate onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, diru-laguntza horiek, osorik edo parte batean, zor dituzten kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeen eraketa:

BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta diru-laguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduarekin bat).

Diruz lagundutako jarduera dela-eta egindako gastuak oro justifikatuko dira, eta ez bakarrik Iruñeko Udalak emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren adinakoa. Justifikazio-kontua jarraian aipatzen diren agiriek osatuko dute, eta haiekin batera deialdi honi atxikitako VI. eranskina (Memoria-txostena proiektuaren garapenari buruz) aurkeztu beharko da:

a) Memoria-txostena, xede horretarako diseinatutako ereduarekin bat: "Memoria-txostena, proiektuaren garapenari buruz". Eredua deialdiari atxikitako eranskinean jaso da.

b) Udalaren diru-laguntzaz baliatuta egin diren material iraunkor guztien kopia (argitalpenak, ikus-entzunezkoak, etab.).

c) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda.

d) Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, ordainagiriak, are nominak ere, tributuko nahiz Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute eta horien zenbatekoa emandako diru-laguntzaren kargura ordaindu bada, modu korrelatiboan ordenaturik aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

Egindako gastuak osagai guztiak jasotzen dituzten fakturen bitartez egiaztatuko dira, eta inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak edota kutzako tiketak. Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFK, fakturaren jaulkitze data, kontzeptua, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehekapena, zigilua, aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta jaulkitzailearen sinadura. Halaber, PFEZren atxikipena eta ordainketa ere zehaztuko da.

f) Zeharkako gastuak justifikatzeko, gastu bakoitzaren izaerari dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dira.

g) Administrazio- eta kudeaketa-gastuak entitatearen egoitzari egokituko zaizkio, diruz lagundutako jarduera egiten den aldikoak izanen dira eta harekin bat etorriko dira.

h) Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ordaindu izana dagokion banku-agiri bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

i) Borondatez aurkez daitekeen beste edozein agiri –idatzizkoa zein grafikoa–, finantzatutako proiektuaren funtzionamendu edo gauzatze egokia egiaztatze aldera.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Justifikazioari dagozkion agiriak elektronikoki ere aurkeztu beharko dira. Dena den, unitate kudeatzaileak jatorrizko dokumentazioa eskatzen ahalko du, behar diren egiaztapenak egiteko.

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukirik: BAI EZ
 Justifikazio-kontu erraztua.

Gastuen egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitate-orrien aurkezpena (Ordenantzaren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Egiaztagiria aurkezteko epea prestakuntza-proiektua gauzatu eta bi hilabeteren ondoren amaituko da, betiere mugaeguna 2019ko abenduaren 16a izanen delarik.

2019ko azaroan eta abenduan egiten diren jardueren kasuan ere egiaztagiria aurkezteko mugaeguna 2019ko abenduaren 16a izanen da.

Salbuespenezko kasuan, prestakuntza-jarduera amaitu gabe egonez gero, behin-behineko memoria eta egiaztagiria aurkeztu beharko dira 2019ko abenduaren 16a bitarte, eta behin betiko memoria eta egiaztagiria, osaturik, 2020ko urtarrilaren 8a baino lehen.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako diru-laguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –diru-laguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietakoa batek ukitzen badu onuraduna, eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: BAI EZ

- Esku-hartzearen esparruan zer emaitza eta jarduera egiteko konpromisoa hartu eta horiek osoki edo parte batez betetzen ez badira.

- Edozein zio dela medio gastuak egiten ez badira, edo horietan funtsezko aldaketak egiten badira, Iruñeko Udalak organo kudeatzailearen bidez horretarako berariazko baimenik eman gabe.

- Diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu eginen da, ez badira justifikazioak aurkezten zehaztutako epeetan.



R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA, XEDE BERERAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. MEMORIA-INPRIMAKIA PROIEKTUARI BURUZ

V. ERANSKINA. PRESTAKUNTZA-EKINTZAREN TARIFAK ETA AURREKONTUA

VI. ERANSKINA. MEMORIA-TXOSTENA PROIEKTUAREN GARAPENARI BURUZ

VII. ERANSKINA. GALDATU BEHARREKO SEGURTASUN NEURRIAK

VIII. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA, ALKATETZAK 2016ko APIRILAREN 21ean ADINGABEAK BABESTEAREN INGURUAN EMANDAKO DEKRETUAK ESKATUTAKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZ.

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*